

# Kazetaritzaz



**SONIA GONZÁLEZ**  
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

**P**rensa egokia, desinteresatua eta eskuzabala denean, ongia ezagutzeko prestaturik dagoenenean eta hori egiteko ausardia daukanean, prentsa horrek bertute publikoa gorde eta zaindu ahal du; bertute publikorik gabe, herriaren gobernu-fartsa eta iseka baino ez da. Prentsa zinikoak, mertzenarioak eta demagogikoak, azkenik, bera bezain trauskila den herriari emango dio forma”.

Joseph Pulitzer, 1904.

Ez dut inoiz kazetaria izan nahi izan. Gazte-gaztetan mutil-lagun bat izan nuen. Hark bai. Hark kazetaritza ikasi zuen. Kazetaria izan nahi; hala ere, merezi zion proiektuko aterik ez zitzaion zabaldu. Beste zerbaitean aritzen da gaurkoz.

Ez dut inoiz kazetaria izan nahi izan, baina zelan ez ulertu grina hori? Nork ez du nahi boterearen gezurrak azalarazi? Nork ez du nahi ezkututzen zaigun zinkinkeria argitu? Estolderia altxatu? Herriarrei egia eman? Nork ez ditu inoiz ikusi *All the President's Men*, *The Post* edo *Spotlight*?

Esango dIdate, eta arrazoiz, kazetaritza-ibilbide apasionagarriak filmetan baino ez direla, lur hartzen denean, txakur amets guztiak haizatzen direla. Nahikoa lan dela lana ez galtzea gauden egoeran egonda, ohiko komunikabideen

eta, batez ere, prentsa idatziaren krisia tarteko.

Andra bi elkarrizketan. Erredakzioa erdi hutsik dagoela kontatzen ari dira, hobeto esanda, elkarri kexaka dabilta, biek ondo dakitenagatik penatan. *Freelance* direla orain gehienak, gutxira arte langile ziren asko barne. *Follower* eta *like*-ak zenbatzen dituen gaztearekin nekaturik omen dago betaurrekoduna, benetan nekatuta pintxoari eman dion haginkada amorratua ikusirik. Bokazioa, bilatuz gero, umeen, fakturen, nekearen artean ondo bilatuz gero, oraindik topa dezakeela, baina aritzeko askatasuna ez dela inondik ageri. Baietz, bestearen erantzuna, kopia-pega egiteaz tortolara arte dagoela.

Eta niri, atzeko mahaian, beste artikulu bat ia-ia amaituta neukala, albisteak egin zidan mugikorrean krak. Pepe Reiren heriotza. Eta kazetaritzaz hasi nintzen hausnartzen. *Ardi Beltza*-k bere momentuan atera zuen Borboiaren liburu berri eta askoz luzatuagoa ixtearekin batera.

Kazetaritza oraindik bada laugarren boterea, baina noizbait beste botereak kontrolatzeko papera izan bazuen, laster igaro zen botereen propaganda tresna bihurtzera. Eta handik azken eskailera mailara: gezurren fabrika, arerioaren

*fake news*-ak desestaltzeaz arrandiatzen direnak barne.

Boterearen alfonbrak altxatzeak ondorio larriak izan ditzake. Pepe Rei, kazetaritzaren printzipio eta balioen eredu izateaz gain, horren adibide ere badugu. Akaso inork inoiz film batean islatu beharko du, alde baten kontakizunak leiho hori aurkitu duela baliaturik.

Gurean kazetaritzak askotariko bi-deak hartu ditu. Zorionekoa da batzuk kargutu izana bestelako kazetaritza egiteko modu bakarra, bestela funtzionatzea dela. Talde handiek egiten dutenaren kopia hutsean ez dago proiektu askatzailerik. Egiarekiko engaiamenduari lepoa eman eta inoren bozgorailu eta propaganda-paskin bihurtzean ez dagoen bezala.

Kriantza biak eta hiru pintxoak ordaindutakoan, ilehoriak antiojodunari galdera gakoak bota dizkio kalera bidea hartu bitartean: “Zeren edo noren alde egon nahi dugu kazetariok? Ordaintzen digun enpresaren interesak eta enpresa horrek defendatzen dituen interes alderdikoiak defendatu behar ditugu edo ogibide honi suposatzen zaion zorrotasunaren alde borrokatu behar gara? Neska, akaso utzi behar diogu galderak egiteari eta erosoak ez diren erantzunak emateari?”. ●